



**Virginia Bazán Gil**

RTVE Artxiboaren Zuzendaria

Virginia Bazán Gil Dokumentazioaren (2005) eta Historiaren lizentzia burutu zuen Alcalá de Henaresko Unibertsitatean (2000), eta Ikasketa Aurreratuen diploma du Osasun Zientzien eta Dokumentazio Zientifikoaren doktoretza-programan, unibertsitate bereko Bibliotekonomia eta Dokumentazioa ezagutza esparruan (2010). Gaur egun, doktore-tesia prestatzen ari da Carlos III Unibertsitatean.

2004an hasi zuen RTVEko ibilbidea, dokumentalista gisa TVEko Artxiboa digitalizatzeko proiektuan. Orduz geroztik, funtsezko zereginak bete ditu: hizkuntza dokumentalen arduraduna izan da 2007-2015 urteetan, ikuskaritza-lana egin du ARCA multimedia kudeatzaile dokumentalaren ezarpenean eta hura programa digitalen erredakzioan txertatzeko sisteman.

2015-2022 urteetan, Funts Dokumentalaren proiektuetako buru izan zen eta Adimen Artifizialeko ekimenetan parte hartu zuen, besteak beste Estrategia Teknologikoen eta Baliabide Interaktiboen eremuekin lankidetzan estuan, eta baita hainbat erakunde eta enpresa publiko zein pribatuetan ere. 2022ko abenduan, TVEren Funts Dokumentalaren zuzendariorde izendatu zuten, eta 2023. urteaz geroztik, RTVEko Artxibategiaren zuzendari karguan dihardu.

Korporaziotik kanpo, 2018. urtetik aurrera Telebistako Artxiboen Nazioarteko Federazioaren Batzorde Exekutiboko kide izan da (IFTA), eta bertako idazkari nagusia da 2020. urteaz geroztik. Horrez gainera, IFTAren Munduko Konferentziaren Programa Batzordearen arduraduna da, eta RTVE – Zaragozako Unibertsitatea Batzorde Paritarioan parte hartzen du.

### **Media artxiboen etorkizuna Adimen Artifizialaren ondorengo aroan**

2017an, RTVEko Artxiboak RTVE Zaragozako Unibertsitatea Katedraren laguntzarekin egin zituen lehenengo urratsak Adimen Artifizialaren (AA) bidean. Lehenengo fasea ikerketa eta kontzeptu-probak izan ziren, eta, horren ondoren, 2021ean inplementatu zen AAn oinarritutako lehenengo metadatze automatikorako irtenbidea. Handik bi urtera, hizkuntza-eredu handiek (LLM) eta adimen artifizial generatiboak eraldatutako testuinguru teknologikoan, bigarren irtenbidea jarri zen martxan; orduko hartan, hizkuntza naturaleko eszenen deskribapen automatikoa txertatu zitzaion. Katedrarekin batera egindako azken kontzeptu-probek egiaztatzen dute litekeena dela edukien errepresentazio bektorialaren bitartez testuak eta irudiak berreskuratzea aurretiko deskribapenik gabe (ez eskuzkoak, ez automatikoak).

Astez aste, hilabetez hilabete, sortzen dira testuinguru teknologiko berriak irudikatzeko moduko aurrerapenak. Informazioa kudeatzeko gure sistemak, orain hamaraldi bat diseinatuak, zaharkituta gelditzen ari dira, eta gure lan-prozedurak eta antolakuntza-egitura ezin dira aldaketa teknologikoak sortzen diren abiada berean egokitu. Testuinguru horretan, ezin dugularik baloratu zer eragin duten gure sistemetan era automatikoan sortutako metadatuaren sarrera ugariak, funtsezkoa da berrikuntzaren ikuspegiari eustea eta teknologia ahalik eta bizkorren egokitzea haren garapenean eragiteko eta hura gure beharretara egokitzeko, horien erabilerak duen eragin etikoa eta etorkizuna ondo aztertzen dugun bitartean.